ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko urriaren 18a, ostirala • 121 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

## ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**16/2019 Foru Araua, urriaren 9koa, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Euskal Trenbide Sareak administrazio, teknika eta finantza arloko lankidetza hitzarmena berresteko, Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko lanak (bigarren fasea) finantzatzeko eta egiteko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

16/2019 Foru Araua, urriaren 9koa, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Euskal Trenbide Sareak administrazio, teknika eta finantza arloko lankidetza hitzarmena berresteko, Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko lanak (bigarren fasea) finantzatzeko eta egiteko.

Arabako Foru Aldundiak eskumenak baliatzen ditu toki erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematearen arloan, uztailaren 16ko 5/1993 Legeak aldatu zuen Lurralde Historikoen Legearen 7.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 21eko 103/2006 Erabakiaren bidez, onetsi egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena sinatzea, Gasteizen tranbia ezartzeko. Ondoren, Arabako Batzar Nagusiek erabaki hori berretsi zuten, apirilaren 10eko 7/2006 Foru Arauaren bidez.

Gasteizko Udalak baliatu egiten ditu, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren arabera, herri barruko bideetan ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa antolatzearen arloko eta hirigintzaren antolamendu, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren arloko eskumenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 7/1985 Legeak 25.2 artikuluaren b) eta d) paragrafoekin bat etorriz. Horrez gain, autonomiaren titularitateko zerbitzuen kostuen finantzazioan lagundu ahal izango du, lankidetzarako formula boluntario edo legezkoak erabilita, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2016ko ekainaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak lankidetza hitzarmena sinatu zuten Gasteizko hiriko garraio publikoaren eskaintza egokitzeko eraikuntza proiektu batzuk idazteko; garraio publikoa egokitzea da xedea, garraiobide publiko kolektibo eta "azken miliakoaren" sistema multimodal integratu eta erabat elektrifikatu bat sortuz.

Sinatutako hitzarmenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak konpromisoa hartzen dute administrazio, administrazio, teknika eta finantza arloko laguntza teknikoa emateko Gasteizko hiriko garraiobide publikoaren eskaintza osorik kontuan hartuko duen proiektu baterako. Hain zuzen, honela gauzatuko da: finantzatzea azterlanak eta ikerlanak idaztea, eraginkortasunaren eta gizarte eta ingurumen errentagarritasunaren aldetik hiri garraio modua eboluzionarazteko gai izango den sistema integratu eta elektrifikatu baterako.

Garraio Azpiegituren Zuzendariaren 2017ko azaroaren 15eko ebazpen bidez, jendaurrean jarri zen Gasteizko tranbia Salburura luzatzearen informazio azterlana, eta egun horretan bertan erabaki zen ingurumen inpaktuaren azterketa ere jendaurrean jartzea.

Bestalde, Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren urtarrilaren 25eko ebazpen bidez egin zen Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko proiektuaren bigarren fasearen ingurumen inpaktuaren adierazpena, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak sustaturik.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bestalde, zehaztu da "Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko eraikuntza proiektuaren Bigarren Fasea. Salburuko Iparraldea", zeinak informazio azterlanean aurreikusitako eta egikaritzekoa izango den trazadura garatzen baitu. Aurreikusitako jarduketarako zenbatekoa 24.834.000,00 euro euro da, BEZa aparte.

Horren ondorioz, bat etorrita bakoitzaren interesekin eta asmoa izanik harremanetarako lankidetza eta elkarrekiko errespetuaren izpiritua mantentzea eta eskuragarri dauden baliabide publikoei ahalik eta etekin handiena ateratzeko indarrak metatzea, lehen aipatutakoek erabaki dute lankidetza hitzarmen hau formalizatzea, zeinaren helburua baita arautzea Euskal Trenbide Sareak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko (bigarren fasea) finantzazioan eta eraikuntzan lankidetzan aritzeko baldintzak.

Gasteizko Udalak bere gain hartuko ditu 4.345.950,00 euro, 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetarako ordainketa kreditu bati dagozkionak, hitzarmen hau finantzatzeko bere aurrekontuen kontura. Halaber, Arabako foru Aldundiak bere gain hartuko ditu 4.345.959,00 euro, 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetarako ordainketa kreditu bati dagozkionak, hitzarmen hau finantzatzeko bere aurrekontuen kontura. Era berean, Euskal Trenbide Sarea Arabak bere gain hartuko ditu 16.142.100,00 euro, 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetarako ordainketa kreditu bati dagozkionak, hitzarmen hau finantzatzeko bere aurrekontuen kontura.

Proiektu hori maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuko I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz izapidetu da (Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituena). Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren genero eraginaren azterlanari buruzko txostenak adierazitakoan oinarriturik, 2019ko uztailaren 1ean proposatzen da betetzea hitzarmen hau garatzean Berdintasunaren arloan indarrean dagoen arau eta programa esparruan xedatutakoa (3/2007 Lege Organikoa, 4/2005 Legea, 29/2017 Foru Dekretua, EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020). Era berean, hitzarmen honetako Jarraipen Batzordeari eskatzen zaio, Arabako Foru Aldundiaren ordezkariaren bidez, genero analisi bat egin dezala.

Horiek horrela, lankidetza hitzarmena izenpetu beharra dago, klausuletan ezarritakoaren arabera, aldeek beren gain hartutako konpromisoak bete ditzaten, hitzarmeneko xedeak gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluak 2019ko abuztuaren 2an egindako bilkuran onetsi zuen lankidetza hitzarmena izenpetzea, bat etorriz 52/1992 Foru Arauak 8.7. artikuluan ezarritakoarekin (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena), eta bidezkoa da Arabako Batzar Nagusiek akordio hori berrestea, aipatutako araudiaren 6.1.2. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz.

ARTIKULU BAKARRA

Berrestea Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta Euskal Trenbide Sarearen administrazio, teknika eta finantza arloko lankidetza hitzarmena, Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko lanak (bigarren fasea) finantzatzeko eta egiteko, erantsitako dokumentuaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 9a

*Presidentea*
*PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GASTEIZKO UDALAREN ARTEKO ELKARLANERAKO HITZARMEN PROPOSAMENA, TRANBIAREN LUZAPENA SALBURURA IRITSI DADIN EGIN BEHARREKO LANEN FINANTZIAZIO ETA BURUTZAPENERAKO. 2. FASEA.**

Gasteizen, 2019ko XXXXXren XX(e)an

**BILDURIK**

Arantxa Tapia Otaegi andre txit gorena, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoko presidentea.

Ramiro González Vicente jaun txit gorena, Arabako Lurralde Historikoko Diputatu Nagusia.

Gorka Urtaran Aguirre jaun txit gorena, Gasteizko Udaleko Alkate Udalburua.

**PARTE-HARTZAILEAK**

Arantxa Tapia Otaegi andre txit gorena, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko presidentea. Administrazio Kontseiluaren 2019ko martxoaren 25ean bileran hartutako erabakiak ematen dio horretarako eskumena.

Ramiro González Vicente jauna, Arabako Lurralde Historikoko Diputatu Nagusi gisa, emandako ordezkaritzarako lege gaitasuna erabiliz.

Gorka Urtaran Aguirre jauna, Gasteizko Udaleko Alkate Udalburu gisa, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak ematen dion Udalaren lege ordezkaritzarekin.

Alde guztiek, bakoitzak duen ordezkaritzaren arabera jarduten dute, eta elkarri honako LANKIDETZARAKO HITZARMEN hau emateko gaitasuna aitortzen diote, eta, horretarako, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE:**

**I.-** Euskadiko Autonomia Erkidegoko Erakundeei dagokiela trenbideen eta tranbien alorreko eskumena, Euskadiko Autonomia Erkidegorako Estatutuaren 10.32 artikuluarekin bat etorriz, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikuluarekin erlazionatuz.

**CONVENIO DE COLABORACION ENTRE RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA, LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ PARA LA FINANCIACIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE LA PROLONGACIÓN DEL TRANVÍA DE VITORIA-GASTEIZ A SALBURUA. 2ª FASE.**

En Vitoria-Gasteiz, a X de XXXXX de 2019.

**REUNIDOS**

La Excma. Sra. Doña Arantxa Tapia Otaegi, Presidenta del Ente Publico Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.

El Excmo. Sr. Don Ramiro González Vicente, Diputado General del Territorio Histórico de Álava.

El Excmo. Sr. Don Gorka Urtaran Aguirre, Alcalde Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

**INTERVIENEN**

Doña Arantxa Tapia Otaegi, en calidad de Presidenta del Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, autorizada a tal efecto por Acuerdo del Consejo de Administración adoptado en su sesión de 25 de marzo de 2019.

Don Ramiro González Vicente, en calidad de Diputado General del Territorio Histórico de Álava y en ejercicio de la capacidad legal de representación conferida.

Don Gorka Urtaran Aguirre, en calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Los intervinientes se reconocen mutuamente la capacidad necesaria para el otorgamiento en nombre de sus respectivas instituciones del presente CONVENIO DE COLABORACION, y a tal efecto:

**EXPONEN:**

**I.-** Que corresponde a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia en materia de ferrocarriles y tranvías de conformidad con el Art. 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco en relación con el artículo 6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de

Hori guztia, garraioen alorrari dagokionez, Euskadiko Garraio Agintaritzari buruzko abenduaren 15eko 5/2003 Legean ezarritakoarekin osatuko da, eta, trenari dagokionez, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzko maiatzaren 21eko 6/2004 Legeak ezartzen duenarekin.

**II.-** 2016ko ekainaren 1eko datarekin Lankidetza Hitzarmena sinatu dela Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean, talde garraiobideen eta *"azken miliakoen"* sistema multimodal integratu eta erabat elektrifikatuaren bitartez garraio publiko eskaintza egokituko duten proiektuen idazketarako.

Sinatutako Hitzarmenaren arabera, alde guztiak, Vitoria-Gasteizko hirian garraio publiko eskaintza osoa integratuko duen proiekturako beharrezkoak diren jarduketa guztietan. Hori, eraginkortasun eta gizarte eta ingurumen alorreko errentagarritasun terminoetan hiriko garraio modua eboluzionatu arazteko gai izango den sistema integratua eta elektrifikatua lortzeko azterketen eta azterlanen idazketaren finantzaketan zehazten da.

Proiektuak Gasteiz osoa hartzen du, eta barruan hartuko ditu mugikortasun behar publikoak eta pribatuak, mugikortasuneko paradigma berrien definizioari dagokionez: zehatzago esanez, Salburua eta Zabalgana auzoen eta Jundizeko industrigunearen beharrak beteko dituen udalerriko ekialde-erdialde-mendebalde komunikaziorako alternatiben azterketa bat jasoko du, zenbait garraiobideren bitartez edo horien konbinazio integratuaren bidez; hiriko tranbia sistemaren hedapen egokiari, udal garraio lineetan trakzio elektrikoko medioen ezarpenari eta horrek guztiak garraio sistema multimodala, osagarria eta integratua, erabiltzailearentzat eraginkorra, ingurumenaren aldetik efizientea eta ekonomiaren ikuspegitik jasangarria osa dezan beharrezkoak diren kudeaketa mekanismoen, azpiegituren eta tresnen ezarpenari buruzko azterlanak.

**III.-** Aipatutako eskuduntza erabiliz eta Administrazioa bere kabuz antolatzeko duen gaitasuna erabiliz ere Euskadi Autonomia Erkidegoak, maiatzaren 21eko 6/2004 legearen bitartez "Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea" Erakunde publikoa sortzea erabaki zuen. Erakunde honen gizarte xedea Trenbide Garraioaren Azpiegiturak eraikitzea, zaintzea, kudeatzea eta administratzea da; horretarako ekainaren 118/2006 dekretuaren bitartez hainbat

sus Territorios Históricos, que se complementa, en lo que respecta a la materia de transportes, con lo establecido en la Ley 5/2003, de 15 de diciembre, de la Autoridad del Transporte de Euskadi y, en la específicamente ferroviaria, por lo dispuesto en la Ley 6/2004, de 21 de mayo, de Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.

**II.-** Que con fecha 1 de junio de 2016 se ha suscrito el Convenio de Colaboración entre la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la redacción de proyectos que adecúen la oferta de transporte público mediante la generación de un sistema multimodal integrado e íntegramente electrificado de medios de transporte público colectivo y de "*última milla*".

Conforme al Convenio suscrito las partes colaboraban en la definición de un proyecto que integre el conjunto de la oferta de transporte público de la ciudad de Vitoria-Gasteiz y que se concreta en la financiación de la redacción de análisis y estudios para un sistema integrado y electrificado capaz de hacer evolucionar el modo de transporte urbano en términos de eficacia y rentabilidad social y ambiental.

Ese proyecto abarca el conjunto de Vitoria Gasteiz y comprenderá las necesidades de movilidad, públicas y privadas, en orden a la definición de nuevos paradigmas de movilidad: en concreto, incorporará un análisis de alternativas de comunicación este-centro-oeste del municipio, que cubra las necesidades de los barrios de Salburua, Zabalgana y polígono industrial de Jundiz, mediante diversos medios de transporte o la combinación integrada de ellos; estudios sobre la adecuada extensión del sistema tranviario de la ciudad, la implantación de medios de tracción eléctrica en las líneas de transporte municipales, la resolución de los problemas de movilidad en última milla que puedan existir y el establecimiento de los mecanismos, infraestructuras y herramientas de gestión necesarias para que todo ello conforme un sistema de transporte multimodal, complementario e integrado, eficaz para el usuario, eficiente ambientalmente y sostenible económicamente.

**III.-** Que en ejercicio de dicha competencia y de su potestad de autoorganización, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, mediante Ley 6/2004 de 21 de mayo, acordó la creación del Ente Público Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea, cuyo objeto consiste en la construcción, conservación, gestión y administración de infraestructuras de transporte ferroviario, para lo que le fueron adscritos determinados bienes como consecuencia de la reducción de capital de la



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ondasun erakunde honi atxiki zitzaion, Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos Sozietatearen kapitala murriztuz eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoari atxikiz. Atxikitako ondasunen eta eskubideen artean daude Euskadiko Autonomia Erkidegoaren trenbide jabari publikoaren ondasunetako batzuk, abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretu eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organiko bitartez transferituak, eta baita Zumarraga eta Zumaia arteko trenbidea eta Bilboko eta Gasteizko tranbien lineak ere.

sociedad pública Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, por Decreto 118/2006, de 6 de junio. Entre los bienes y derechos adscritos se encuentran parte de los bienes de dominio público ferroviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi que conforman las líneas ferroviarias transferidas por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto, y Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, así como la línea de ferrocarril de Zumarraga a Zumaia, además de las líneas tranviarias de Bilbao, y Vitoria-Gasteiz.

**IV.-.** 2017ko apirilaren 4ko Gobernu Kontseiluaren akordio bitartez, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari Agindua ematen zaio, Gasteizko Tranbia Angulema-Unibertsitatea zatian zabaltzeko eraikuntza lanak egiteko (2017ko apirilaren 20eko EHAA-ean argitaraturiko akordioa).

**IV.-.** Por acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 4 de abril de 2017, se encomienda al Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea la construcción de la ampliación del tranvía de Vitoria-Gasteiz, en el tramo de Angulema-Salburua (Acuerdo publicado en el BOPV el día 20 de abril de 2017).

**V.-** Arabako Foru Aldundiak toki erakundeei ematen zaien laguntza eta aholkularitza teknikoaren alorreko eskumenak dituela, uztailaren 16ko 5/1993 Legez aldatutako Lurralde Historikoen Legearen 7.5. artikuluak xedatzen duenez.

**V.-** Que la Diputación Foral de Araba ejerce competencias en materia de asistencia y asesoramiento técnico a las entidades locales, conforme al artículo 7.5 de la Ley de Territorios Históricos, modificada por Ley 5/1993, de 16 de julio.

**VI.-** Gasteizko Udalak, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legediari dagozkion terminoetan, eskumenak dituela pertsonen eta ibilgailuen trafikoaren antolakuntzaren alorrean hiri barruko bideetan, eta hirigintzaren antolakuntza, kudeaketa, burutzapena eta diziplinari dagokiona, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluaren b) eta d) lerroaldeetan xedatzen denez, eta, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 71. artikuluan xedatutakoa kontuan izanik, erkidegoaren titulartasuneko zerbitzuen kostuen finantzaketara aurkez daitekeela, borondatezko edo legezko laguntza formulen bitartez

**VI.-** Que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ejerce, en los términos de la legislación del Estado y de la Comunidad Autónoma, competencias en materia de en materia de, tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad y transporte colectivo urbano, y de ordenación, gestión, ejecución y disciplina urbanística, conforme al Art. 25.2, párrafos g) y a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, pudiendo, conforme al Art. 71 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, concurrir a la financiación, mediante fórmulas de colaboración voluntaria o legal, del coste de servicios de titularidad autonómica.

**VII.-** Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz behin betiko onetsitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Jarraibideek (LAJ-DOT) aurreikusten dutela “hirigune konplexuetan (Gasteiz inguruetan) garraio azpiegiturak antolatu ahal izateko ikuspegi sektoriala gainditu egin behar dela, eta hirigintzako estrategien eta azpiegituren aurreikuspenaren arteko korrespondentzia bermatu behar dela, kontzertazioaren kulturan sakonduz, parte hartzen duten erakundeen arteko harremanetarako.”

**VII.-** Que las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (DOT), aprobadas definitivamente mediante Decreto 28/1997, de 11 de febrero, prevén que: “Para la ordenación de las distintas infraestructuras de transporte, especialmente en áreas urbanas complejas (entornos de Vitoria-Gasteiz), debe superarse el enfoque sectorial, garantizando una correspondencia entre las estrategias urbanísticas y la previsión de las infraestructuras a través de una profundización en la cultura de la concertación para las relaciones entre los diferentes organismos e instituciones involucradas.”

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialak, Gasteizko hirirako metro arin sistema ere aurreikusten duela eta baita Eusko Jaurlaritzaren

El Plan Territorial Parcial de Álava Central contempla un sistema de metro ligero para la ciudad de Vitoria-Gasteiz y la colaboración del



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

eta Arabako Foru Aldundiaren arteko elkarlana, metro arin sistema hori martxan jartzeko.

**VIII.-** Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretu bitartez onetsitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Sektoreko Lurralde Planak, Gasteizen Metro arina Ekialdera-Salburura luzatzea proposatzen du, luzapen arrazoizkoen gisa. Tranbiaren linea luzatzeak, hiriaren ezkerraldean dauden auzoen eta erdialdearen arteko lotura zuzena hobetzeko aukera ematen du, Santa Luzia eta Salburua auzoena, zehatzago esanez, eta baita Lakuako autobus geltokiaren eta une honetan dauden lineen zerbitzua duten guneekin. Horrez gain, auzo horiek, hiriaren hegoaldera joango den linea berriarekin lotzeko aukera ematen du, Unibertsitatearekin lotura ezartzeko aukera eskainiz.

**IX.-** Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, beste helburu batzuen artean, garraio publikoaren aukera bultzatu nahi duela, energiaren eta gizarte kostuen artean dagokion arintasuna eta lehentasuna emanez. Horrez gain, sektoreko zenbait ezaugarri azpimarratzen ditu, besteak beste zenbait errail garraio publikorako espezializatu litezkeela, garraio mota konplexuagoren bat (metro arina edo tranbia) proposamenaren barruan sartzeko aukera eskainiz.

**X.-** Garraio Azpiegitura Zuzendariaren 2017ko azaroaren 15eko ebazpen bitartez, "Vitoria-Gasteizko Tranbia Salburura luzatzearen Informazio Azterlana. 2. Fasea" izenekoa jende aurrean aurkeztu zen, eta egun berean, ingurumen eraginari buruzko azterlana ere jende aurrean aurkeztea erabaki zen. Aurkezturiko alegazioak bitarteko eginiko aldaketa dela eta, Garraio Azpiegitura Zuzendariaren 2019ko otsailaren 27ko ebazpen bitartez, "Vitoria-Gasteizko Tranbia Salburura luzatzearen Informazio Azterlanaren Aldaketa Puntuala. 2. Fasea. Salburua Iparraldea" izenekoa jende aurrean aurkeztu zen.

Beste alde batetik, Ingurumen Administrazio 2019ko urtarrilaren 25eko ebazpen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegitura Zuzendaritzak sustatutako Vitoria-Gasteizko Tranbia Salburura luzatzeko proiektuaren, 2. Fasearen Ingurumen eragineko adierazpena ematen da.

Beste alde batetik, "Vitoria-Gasteizko Tranbia Salburura luzatzearen Eraikuntza Proiektua. 2. Fasea. Salburua Iparraldea" definitu da. Informazio Azterlanean aurreikusitako trazatua garatzen du eta egikaritu egingo da.

Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava para su puesta en marcha.

**VIII.-** Que el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco (PTS), aprobado definitivamente mediante Decreto 41/2001, de 27 de febrero, propone como la extensión más razonable, la ampliación del tranvía de Vitoria-Gasteiz hacia el Este-Salburua. La ampliación de línea de tranvía permite mejorar la conexión directa de los barrios situados en el margen este de la ciudad, concretamente los barrios de Santa Lucía y Salburua con el centro, así como con la estación de autobuses de Lakua y con las zonas actualmente servidas por las líneas existentes. Asimismo, posibilita la conexión de estos barrios a la nueva línea hacia el sur de la ciudad, pudiendo conectarse con la universidad.

**IX.-** Que el Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, entre otros, pretende como objetivo favorecer la opción de transporte público dotándole de la agilidad y prioridad que le corresponde como optimizador en términos energéticos y de costes sociales. Además, incide en algunos rasgos sectoriales como que algunos carriles podrían llegar a especializarse para el transporte público, incluyendo la posibilidad de que algún modo de transporte más complejo (metro ligero o tranvía) pudiera quedar comprendido en la propuesta.

**X.-** Por Resolución de 15 de noviembre de 2017, del Director de Infraestructuras del Transporte, se somete a información pública el "Estudio Informativo de la prolongación a Salburua del Tranvía de Vitoria-Gasteiz. 2ª Fase", acordándose en la misma fecha someter a información pública el estudio de impacto ambiental. A la vista de las alegaciones presentadas, y la modificación realizada con respecto a este Estudio, por Resolución de 27 de febrero de 2019, del Director de Infraestructuras del Transporte, se somete a información pública la "Modificación Puntual del Estudio Informativo de la prolongación a Salburua del Tranvía de Vitoria-Gasteiz. 2ª fase. Salburua Norte".

Por su parte por Resolución de 25 de enero de 2019 del Director de Administración Ambiental, se formula la declaración de impacto ambiental del proyecto de prolongación a Salburua del tranvía de Vitoria-Gasteiz, 2ª fase, promovido por la Dirección de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco.

Por su parte se ha definido el "Proyecto Constructivo de la prolongación del Tranvía, a Salburua. 2ª Fase. Salburua Norte" que desarrolla el trazado previsto en el Estudio Informativo y que será objeto de ejecución.

Aurreikusitako trazatuak 2.450 metro inguruko luzera du, Floridako geralekuko maniobra gunearen ondoren hasten da, Salburua iparralderaino, eta bost geraleku ditu: Santa Luzia, Zentro Zibikoa, Nikosia, Salburua eta Juan Carlos I. Florida kaletik joango da, eta Jacinto Benavente kalearekin gurutzatu eta gero, Iliadako Pasealekutik jarraituko du, Salburuko Bulebarreko mendebaldea, Brusela Etorbideko bidegurutzearen ondoren, Juan Carlos I. Etorbidean aurreikusita dagoen azken geralekura heltzeko.

El trazado previsto dispone de una longitud aproximada de 2.450 metros, que comienza tras la zona de maniobra de la parada de La Florida, hasta Salburua Norte, disponiendo de cinco paradas: Santa Lucía, Centro Cívico, Nicosia, Salburua y Juan Carlos I. Discurrirá desde la calle La Florida, que tras el cruce con la calle Jacinto Benavente, continuará por el Paseo de la Iliada, lado oeste del Boulevard de Salburua, llegando tras el cruce con la Avenida Bruselas a la última parada prevista en la Avda. Juan Carlos I.

Aurreikusitako jarduketaren zenbatekoa, horren egikaritzeari dagozkion gastu guztiak barne hartzen dituena, 24.834.000.- euro ingurukoa da (BEZ aparte).

El importe de la actuación prevista, en el que se incluyen todos los gastos correspondientes a la ejecución del mismo asciende aproximadamente a 24.834.000.- euros (I.V.A. excluido).

Ondorioz, bakoitzaren interesei dagokienez ados egonik, eta beraien harremanetan elkarlan eta elkarrekiko errespetu izpirituari eusteko asmoz, eta, halaber, denen esfortzuak elkartuz, dauden baliabide publikoen ahalik eta etekin handiena lortzeko, honako ELKARLANERAKO HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauetan oinarriturik

En consecuencia, estando de acuerdo en sus respectivos intereses y con el ánimo de mantener el espíritu de colaboración y de respeto mutuo en sus relaciones, así como de conjuntar esfuerzos para obtener el máximo rendimiento de los recursos públicos disponibles, deciden formalizar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN conforme a las siguientes

**KLAUSULAK:**

**CLAUSULAS:**

**LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA**.

Hitzarmen honen xedea Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren hartutako konpromisoaren baldintzak ezartzea da. Konpromiso horren bitartez, hiru erakundeek Gasteizko tranbiaren luzapenaren finantzaketan eta eraikuntzan elkarrekin arituko dira. Lan hauen aurrekontua 24.834.000 €.-ra iristen da (BEZ kanpo).

**PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO**.

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en que el Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se comprometen a colaborar en la financiación y construcción de la prolongación del Tranvía de Vitoria-Gasteiz, a Salburua. 2ª fase, cuyo presupuesto asciende a la cantidad de 24.834.000.- euros (I.V.A. excluido).

**BIGARRENA.- RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREAREN KONPROMISOAK.**

Erakunde publikoak ondorengo konpromezuak bere gain hartzen ditu:

a) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari dagokio burutu beharreko azpiegituren azterlanak eta proiektuak idaztea. Horren barruan sartzen da proiektu teknikoen burutzapen materiala, zuzenean edo beste batzuen bitartez, bideragarritasun ekonomikoari eta ingurumen ebaluazioari dagozkionak barne.

b) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak burutuko ditu Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoa eta Azpiegituren Sailak onetsitako

**SEGUNDA.- COMPROMISOS DE RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA.**

El ente público asume los siguientes compromisos:

a) Corresponde a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea la redacción de los estudios y proyectos de las infraestructuras tranviarias a ejecutar. Esto comprende la elaboración material, por sí o por medio de tercero, de los proyectos técnicos y evaluación medioambiental.

b) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea llevará a cabo la licitación, contratación, dirección e inspección de la ejecución del proyecto aprobado



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

proiektuaren kontratazioa, zuzendaritza eta burutzapenaren ikuskapena.

c) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak, bere aurrekontuen kargura, eta ondorengo puntuan ezartzen diren ekarpenen arabera egingo ditu, tranbiaren luzapenaren benetako inbertsio gastuak, azpiegitura eta lanak barne, eta baita obra zuzendaritzarako edo bestelakoetarako beharrezkoak izango diren laguntza zerbitzuak ere.

d) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak, obren kontrataziorako aurreikusten den kostua era partzialean finantzatzeko xedez, Lehen Klausulan adierazten den aurrekontuaren %65 finantzatuko du. Kopuru hori 16.142.100 eurokoa da (BEZ aparte).

Hitzarmen honen ondoriozko ordainketa-kredituak eta konpromisoa dagozkien aurrekontuetan esleitu ahal izateko helburuz, Erakunde Publikoari dagokion urte anitzeko finantzazio hori, urte bakoitzeko honako kopuruekin ezartzen da 2020., 2021. eta 2022. urteetarako:

2020: 5.005.000.-€.
2021: 7.820.000.-€.
2022: 3.857.100.-€.

**HIRUGARRENA.- ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISOAK.**

Arabako Foru Aldundiak, obren kontrataziorako aurreikusten den kostua era partzialean finantzatzeko xedez, Lehen Klausulan adierazten den aurrekontuaren %17,5 finantzatuko du. Kopuru hori 4.345.950 eurokoa da (BEZ aparte).

Hitzarmen honen ondoriozko ordainketa-kredituak eta konpromisoa dagozkien aurrekontuetan esleitu ahal izateko helburuz, Arabako Foru Aldundiari dagokion urte anitzeko finantzazio hori, urte bakoitzeko honako kopuruekin ezartzen da 2020., 2021. eta 2022. urteetarako:

2020: 1.347.500.-€.
2021: 1.960.000.-€.
2022: 1.038.450.-€.

**LAUGARRENA.- GASTEIZKO UDALAREN KONPROMISOAK.**

Gasteizko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Tranbiaren hirigintza bateragarritasuna era formalean adieraztea, trazatuak ukitzen dituen guneetarako erabilera baimendu gisa.

por el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras a tal efecto.

c) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea asumirá, con cargo a sus presupuestos, y de acuerdo a las aportaciones recogidas en el siguiente apartado, los gastos de inversión real de la ampliación del tranvía, comprendidas todas las infraestructura y las obras, y los servicios de apoyo que se requieran para la dirección de obra, o de otra índole.

d) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea aportará, a efectos de financiar parcialmente el coste estimado para la contratación de las obras, el 65% del presupuesto I.V.A. excluido señalado en la cláusula primera, que asciende a 16.142.100.-€. (IVA excluido),

Con el objeto de poder consignar en los respectivos presupuestos los créditos de pago y compromiso que derivan del presente Convenio, dicha financiación plurianual correspondiente al Ente Público se establece, para los años 2020, 2021 y 2022, las siguientes anualidades:

2020: 5.005.000.-€.
2021: 7.280.000.-€.
2022: 3.857.100.-€.

**TERCERA.- COMPROMISOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ARABA.**

La Diputación Foral de Araba se compromete a aportar, a efectos de financiar parcialmente el coste estimado para la contratación de las obras, el 17,5% del presupuesto I.V.A. excluido señalado en la cláusula primera, que asciende a la suma de 4.345.950.- euros.

Con el objeto de poder consignar en los respectivos presupuestos los créditos de pago y compromiso que derivan del presente Convenio, dicha financiación plurianual establece, para los 2020, 2021 y 2022, las siguientes anualidades:

2020: 1.347.500.-€.
2021: 1.960.000.-€.
2022: 1.038.450.-€.

**CUARTA.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ.**

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se compromete a:

a) Declarar formalmente la compatibilidad urbanística del tranvía, como uso autorizado para las áreas afectadas por su trazado.



